

UPV/EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren Gradu Amaierako Lanaren dokumentu idatziaren ebaluazioa eta kalifikazioa

Gaitasunak, Irakaskuntza Gidaren arabera

Kodea Gaitasunak

MEC2	Ikasleek beren jakintzak lan jardunean profesionaltasunez aplikatzen jakitea, eta beren ikasketa alorrarekin zerikusia duten argudioak emanez eta arazoak ebatziz egiaztatu ohi diren gaitasunak edukitzea.
1. GE	Jarduera fisikoaren eta kirolaren eremu bat kritikoki aztertzea, ikasketetan ikasitakoa erabiliz, bikaintasun eta kalitate ohiturak hartuz, eta lanbidean egoki aritzeko behar diren printzipio etikoak bultzatuz.
2. GE	Ikasitakoa aplikatuko den lan egoerei lotutako esparru bati buruzko txostena edo proiektua egitea, hobekuntzak proposatzeko esku-hartze profesionalaren arloan.
G019	Buruzagitza gaitasunak, pertsonen arteko harremana eta talde lana garatzea.
G020	Egoera berrietara egokitze, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.
G021	Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea.
G022	Lan arloan behar bezala aritzeko nahitaezkoak diren printzipio etikoak ezagutzea eta horien arabera jardutea.

Ikaskuntza emaitza, Irakaskuntza Gidaren arabera.

Irakasgai honen helburu nagusia da Graduaren prestakuntza fasearen osagarri izatea eta hari amaiera jartzea, eta ikasleek gai izan behar dute titulazioan eskuratutako gaitasun orokorrak GRALean aplikatzeko. Lan hori egitean, ikasleek gai izan beharko dute beren ikasketa arloko datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko, bai eta landutako gaiari buruzko gogoeta barne hartuko duten iritziak emateko ere, pentsamendu eta iritzi kritiko, logiko eta sortzaile bat garatuta.

GRALaren txosten idatzirako errubrika proposamena

Ebaluatutako irizpidearen azalpena eta dagozkion gaitasunak:

Gaitasuna	Irizpideak	Azalpen laburpena
G021 MEC2	Lanaren idazketa akademikoa eta egitura.	Irizpide honek ebaluatzen du GRALaren txostena argi eta era formalean idatzita dagoen, estilo akademikoko egokiarekin, gramatika eta ortografia arauak errespetatuta. Halaber, baloratzen du lanaren egiturak GRALaren gidan ezarritako formatuari jarraitzen dion, APA 7 arauak behar bezala aplikatzen diren, eta dokumentuaren formatu orokorra (tipografia, lerroarte, marjinak), taulak eta irudiak egokiak, koherenteak eta kalitate bisual eta akademikoko onekoak diren.
MEC2 2. GE	Lanaren problema eta helburuak formulatzea.	Irizpide honek baloratzen du ikasleen gaitasuna jardura fisikoaren arloko problema bat argi identifikatzeko, mugatzeko eta aurkezteko. Halaber, ebaluatzen du lanaren helburuak ondo formulatuta dauden, espezifikoak diren, koherenteak planteatutako problemarekin, eta egokiak GRAL batean espero den maila akademikorako.
MEC2 2. GE G020	Egokitzapen metodologikoa.	Irizpide honek baloratzen du metodologia (edo aukeratutako lan mota: berrikuspene, landa lana, esku-hartzea, etab.) ondo lerrokatuta dagoen problemarekin eta ezarritako helburuekin. Kontuan hartzen da ere diseinu metodologikoak egoki erantzuten dien helburu horiei.
1. GE MEC2	Esparru teorikoa lantzea.	Irizpide honek baloratzen du ikasleen gaitasuna informazio zientifiko garrantzitsua aukeratzeko, antolatze eta aurkezteko, lanaren kontzeptu oinarri gisa. Ebaluatzen da ere analisiaren sakontasuna, iturrien egokitasuna eta ezagutza teorikoak bat etortzea azterlanaren xedearekin.

1. GE MEC2 G020	Emaitzak analizatzeko, interpretatzeko eta argudiaketa kritikorako gaitasuna.	Irizpide honek ebaluatzen du ikasleen gaitasuna erabiltzen duten informazioa (datuak edo bibliografia) analizatzeko eta interpretatzeko, bai eta haien trebezia ere proposamen koherenteak eraikitze edo beren erabakiak modu kritikoan oinarritzeko. Baloratzen dira analisiaren sakontasuna, esparru teorikoarekiko lotura eta argudioaren kalitatea.
G022 1. GE G021	Etikara eta kode deontologikora egokitzea.	Irizpide honek ebaluatzen du ea ikasleek behar bezala ezagutzen eta aplikatzen dituzten printzipio etikoak eta Gorputz eta Kirol Hezkuntzako lanbidearen Kode Deontologikoa GRALa egitean: dela azterlan enpiriko bat, dela berrikuspen teoriko bat, esku hartzeko proposamen bat edo beste edozein formatu. Kontuan hartzen ditu, besteak beste: baimen informatua, pertsonen eskubideak errespetatzea, informazioaren erabilera etikoa, erantzukizun profesionala, justizia, konfidentzialtasuna eta kalitatearekiko eta segurtasunarekiko konpromisoa praktika profesionalean.
2. GE G019 MEC2	Originaltasuna, sormena eta ekarpen pertsonala.	Irizpide honek baloratzen du ikasleen gaitasuna ikuspegi propio, sortzaile edo berritzaile batekin lan egiteko. Ebaluatzen da ea GRALak lehendik dagoena erreproduzitzera mugatzen ez diren ideiak, ikuspegiak, proposamenak edo analisiak aurkezten dituen, bai eta ikasleek balio erantsia ematen duten ere, haien ikuspegi profesionalaren, sintesirako gaitasunaren edo oinarritutako proposamenen bidez.
G020 G021	Lan autonomoa eta antolakuntza.	Irizpide honek ebaluatzen du ikasleen gaitasuna GRALa modu autonomoan planifikatzeko, antolatze edo gauzatzeko, epeak betez (entregak tutoreari) eta ekimena, konstantzia eta gaitasuna erakutsiz, proiektua ikertzeko edo garatzeko prozesua kudeatze aldera. Halaber, baloratzen dira lan prozesuaren antolakuntza orokorra, edukiaren plangintza eta autogestio gaitasuna.

GRALaren txosten idatziaren balorazio eta kalifikaziorako errubrika

Irizpidea	Haztapena (%)	Ez-gai (0-4.9 puntu)	Gai (5-6.9 puntu)	Oso ongi (7-8.9 puntu)	Bikain (9-10 puntu)	Puntuazioa
Lanaren idazketa akademikoa eta egitura	15	Txosten idatziak ez du betetzen web orriaren gidak ezarritako formatua edo egitura. - Ez dator bat APA 7 arau akademikoeekin. - Lanaren egiturak ez du inolako antolakuntzarik, eta jarraitzen zaila da. - Ortografia eta gramatika akats asko daude. Erregistro informala erabiltzen da. - Taulak eta irudiak ez dira zehatzak, gaizki erreferentziatuta daude edo ez dute balio erantsirik. - Dokumentuaren estilo orokorra zaindu gabe dago eta nahiko zabarra da (tipografia, marjinak, lerroarteak...).	Txostenak partzialki betetzen ditu ezarritako egitura eta formatua. - APA 7 arauak betetzen ditu, nahiz eta akats edo gabezia ugarirekin. - Egiturak aukera ematen du argudioaren hariari jarraitzeko, baina ulertzea zailtzen duten hainbat nahaste edo jauzi ditu. - Oro har, ortografia eta gramatika arauak errespetatzen dira, nahiz eta erregistro informala erabiltzen den. - Dokumentuaren formatua eta taulak/irudiak funtzionalak dira, baina zaindu gabe daude, edo gaizki aplikatuak.	Txostenak egoki betetzen ditu ezarritako egitura eta formatua. - APA 7 arauak betetzen ditu, akats txiki batzuekin. - Egitura argia da, inkoherentzia batzuekin, baina arazorik gabe jarrai dakioke hariari. - Ortografia eta gramatika arauak errespetatzen dira, erregistro akademikoko egoki batekin. - Dokumentuaren formatu orokorra egokia eta uniforme da. Taulak eta irudiak egokiak dira eta ondo aurkezten dira.	Txostenak zehatz eta egoki betetzen ditu arau akademikoa eta aurkezpen arau guztiak. - APA 7 arauak betetzen ditu, akatsik gabe edo oso akats gutxiarekin. - Lanaren egitura, bere osotasunean, argia, logikoa eta koherentea da. - Guztiz errespetatzen dira ortografia, gramatika eta erregistro akademikoa. - Dokumentuaren estiloa uniformea eta profesionala da. Taulak eta irudiak ondo zenbakituta eta erreferentziatuta daude, eta balioa erantsen diote edukariari.	
Lanaren problema eta helburuak formulatzea	15	Problema ez dago zehaztuta edo nahasgarria da, eta helburuak hutsalak dira edo ez dago helbururik.	Problema modu lausoan formulatuta dago, zabalegia da eta ikuspegi praktikoa falta zaio. Helburuak ez dira zehatzak eta argiak.	Problema ondo zehaztuta dago eta helburuak egokiak dira, gehiago zehaztu badaitezke ere.	Problema argi eta garbi zehaztuta dago eta helburuak espezifikak eta egokiak dira, koherenteak gaiarekin.	
Egokitzapen metodologikoa	15	Planteatutako lan metodologia/mota ez dator bat problemarekin eta ezarritako helburuekin.	Planteatutako lan metodologiak/motak nolabaiteko lotura du problemarekin eta helburuekin, baina ez du balio haiei modu egokian erantzuteko.	Planteatutako lan metodologia/mota bat dator problemarekin eta ezarritako helburuekin. Lanak neurri handi batean erantzuten die problemari eta helburuei, gai batzuk guztiz aztertzen ez badira ere.	Planteatutako lan metodologia/mota bat dator problemarekin eta ezarritako helburuekin. Lanak erantzuten die problemari eta helburuei.	
Esparru teorikoa azalzea	15	Esparru teorikoa azalekoa edo nahasia da, edo ez dago esparrurik. Ez dago erreferentzia esanguratsurik, edo sartzen direnek ez dute loturarik problemarekin eta lanaren helburuekin.	Esparru teorikoak gaiari lotutako informazioa jasotzen du, baina ez dago oso egituratuta edo hutsune garrantzitsuak ditu. Iturri gutxi erabiltzen dira edo ez daude eguneratuta. Problemarekiko eta helburuekiko lotura ahula da.	Esparru teorikoa ondo egituratuta dago, eta iturri egokietan oinarritzen da. Kontzeptu esanguratsuak barne hartzen ditu, gehiago sakon litekeen arren, edo erreferentziak zabaldu. Problemarekiko eta helburuekiko lotura egokia da.	Esparru teorikoa sendo oinarrituta dago, ondo egituratuta, eta iturri eguneratuetan eta esanguratsuetan oinarritzen da. Literaturaren analisi kritikoa egiten du eta argi eta garbi zehazten du bere lotura problemarekin eta lanaren helburuekin.	

Emaitzak analizatzeko, interpretatzeko o eta argudiaketa kritikorako gaitasuna	15	Ez dago analisi eta interpretazio argirik. Erabakiak eta baieztapenak aurkezten dira justifikaziorik gabe eta teoriarekiko eta helburuekiko loturarik gabe. Ez dago argudiaketa kritikorik, ez eta gogoetarik ere.	Informazioa azaletik aztertzen edo interpretatzen da, lotura txikiarekin teoriaren eta praktikaren artean. Proposamena (halakorik dagoenean) ez dago ondo oinarrituta. Argudiaketa kritikoa ahula da.	Informazioa (emaitzak edo bibliografia) ondo aztertzen da, helburuekin edo oinarri teorikoekin lotuta. Erabaki praktikoa justifikatuta daude. Gogoeta eta argudiaketa kritikorako nolabaiteko gaitasuna dago.	Analisia sakona eta koherentea da, eta ondo artikulatuta dago. Proposamenaren emaitzak edo elementuak justifikatuta daude, oinarri teoriko eta kritikoarekin. Mugak eta alternatibak identifikatzen dira, eta argi eta zorrotz argudiatzen da.	
Etikara eta kode deontologikora egokitzea	5	Lanak ez du printzipio etikorik aipatzen eta ez du haiekiko sentsibilitaterik erakusten. Omisio edo hutsune nabarmenak daude (adibidez, baimenik eza esku-hartzeetan, iturriak modu desegokian erabiltzea, kode deontologikoa edo inplikaturako pertsonen eskubideak ez errespetatzea).	Alderdi etikoak modu generikoan edo azaletik aipatzen dira. Adostasuna edo konfidentzialtasuna aipatzen da, xehetasunik gabe, edo kode deontologikoaren printzipioak identifikatzen dira, baina lanean nola aplikatzen diren justifikatu gabe.	Lanean, gogoeta etiko bat egiten da, azterlan edo proposamen motarako egokia. Egoki identifikatzen dira lanean inplikaturako alderdi etikoak (hala nola pertsonetikiko errespetua, ekitatea, informazioaren erabilera arduratsua), eta horiek betetzeko hartutako neurriak azaltzen dira.	Lanean, ondo ulertu eta aplikatzen dira printzipio etikoak eta kode deontologikoa. Sor daitezkeen dilema etikoei buruzko analisi kritikoa egiten da, eta argi azaltzen dira praktika etiko eta arduratsu bat bermatzeko hartutako erabakiak.	
Originaltasuna, sormena eta ekarpen pertsonala	5	Lanak lehendik dagoen informazioa erreproduzitu besterik ez du egiten, ideia propiorik edo interpretazio originalik eman gabe. Ez dago ahots edo ikuspegi pertsonalik. Sormenik edo gogoeta autonomorik eza.	Lanak elementu pertsonal edo sormen elementu batzuk ditu, baina azalekoak edo garapen gutxiak. Informazio bilketa da nagusi. Norberaren ekarpena ez dago argi identifikatuta, ez eta ondo oinarrituta ere.	Ikasleak bere ideiak edo ikuspegiak planteatzen ditu, ondo lotuta bibliografiarekin. Gogoeta pertsonala, sormenezko egokitzapena edo testuinguruan kokatutako aplikazioa suma daitezke. Balio erantsia ematen du, oso berritzailea izatera heldu gabe.	Aipatzekoak dira lanaren originaltasuna eta sakontasuna. Proposamen, analisi edo ikuspegi berri bat planteatzen du, oinarri sendo batekin. Ekarpene pertsonala argi eta garbi garatuta dago, esanguratsua da, eta gogoetan, sormenean eta kritikan oinarritutako jarrera du.	
Lan autonomoa eta antolakuntza	15	Ikasleak jarrera pasiboa izan du, ez ditu entrega epeak bete, edo tutorearen orientazioaren mende aritu da neurri handi batean. Ez da ikusten ez lan planifikaziorik ez antolakuntzarik. Konstantzia edo konpromiso falta prozesuan.	Lana nolabaiteko autonomiaz egin da, etengabe gainbegiratu behar izan bada ere. Lanaren epeak partzialki bete dira eta antolakuntza irregularra izan da, deskoordinazio une batzuekin, edo planifikazio argirik gabe.	Ikaslea era autonomoan aritu da prozesu osoan, epeak bete ditu, eta lana antolatze gaitasuna erakutsi du. Ondo erabili ditu bai denbora bai baliabideak, hobetzeko tarterik duen arren lanaren planifikazio edo erritmo kontuetan.	Ikasleak modu eredugarrian kudeatu du lana, autonomia, ekimena eta konstantzia erakutsita prozesu osoan. Eraginkortasunez planifikatu du, epeak zorrotz bete ditu eta antolakuntza argia izan du, bai edukia lantzean bai prozesua kudeatzean.	

Nota finala: __/100

Oharrak: